


Gamazada
1893-1894



Germán Gamazo, Madrilgo gobernuko ogasun ministroa

- 1893ko maiatzaren 11n, Gamazok estatuko aurrekontuen lege berria aurkeztu zuen. Lege horren 17. artikulua hala zioen:
- “Gobernuak berehala erabiliko du 1877ko uztailaren 11ko legearen 8. artikulua ematen dion baimena, Nafarroa probintzian zama, errenta eta zergak ezartzeko, lege honen arabera gainerako probintzietan aplikatu eta sortzen diren bezalaxe.”



Eta Nafarroako herria matxinatu zen

Zergatik baina?

- Zergatik matxinatuko ziren nafarrak “gainerako probintzietan bezala” Nafarroan herritarren kopuruaren arabera proportzioan tokatzen zitzairen zergak ordaintzeagatik?
- Nafarroa estatu independentea izan zelako mila urtez, 824 eta 1841 bitarte.
- Ondorioz, nafarrek ez zuten inoiz Nafarroan baino zergak ordaindu hamar mendeetan zehar.
- Ez zuten 1893an Nafarroatik kanpo zergak ordaintzen hasi nahi.



Zer esan nahi du “estatu independente” izateak?

- Hiru botereak zituen erakunde politikoa zela: Legegilea, exekutiboa eta betearazlea
- Laugarren boterea ere bazuela: administrazioa
- Lurraldetasuna zuela: Aduanak, komertzioa eta zerga sistema propioa
- Hiritartasuna bazuela: Pasaportea
- Sistema fiskal propioa: Moneta eta zerga sistema
- Hizkuntza
- Atzerri harremanak...



“Tranpa epistemologikoa”

- Gorteek beti erabili zuten "erresuma" terminoa Nafarroako estatua aipatzeko.
- Batzuek diote historiografikoki "estatu" terminoa ezin dela 1789 ondorengo lurralde subiranoei bakarrik aplikatu, eta termino hori erabiltzeak "tranpa epistemologikoa" dakarrela.
- Ni ez nator iritzi horrekin bat.
- Aipatzen dudan estatuaren kontzeptua, definizioz, **gobernu bat, definitutako lurralde bat eta biztanleria iraunkor bat duen entitate politiko bat da. Estatu batek bere lurraldean legeak ezartzeko eta betearazteko gaitasuna du eta beste estatu subiranoek aitortzen dute. Estatu baten osagaiak lurraldea, biztanleria, gobernua eta subirautza dira. Subirautzak independentzia eta autogobernurako gaitasuna dakar. Estatu baten funtzio nagusietako batzuk ordena publikoa mantentzea, segurtasuna bermatzea, justizia administratzea, zerbitzu publikoak eskaintzea eta nazioaren ordezkaritza egitea dira nazioarteko gaietan. Gainera, Nafarroako Estatu Orokorren arabera, beste gai premiazko askoren gaineratik, Nafarroako estatuaren funtzio nagusia bere biztanleen ongizatea eta zoriontasuna bermatzea zen.**
- Uste dut "Nafarroako erresuma" terminoaren esanahi juridiko, politiko eta historikoa definizio honekin ezin hobeto bat datorrela, eta zentzu honetan erabiltzen dut.

Luis III.a

- Nafarroako Louis III.ak, Frantziako Louis XIV.ak, bi erresuma hauen bereizketa eta independentzia aitortu zuen.
- En 1649, Nafarroako Erresumako Estatu Orokorrek uko egin zioten diputatuak bidaltzeari, Luis XIV.aren aginduaren aurka.
- Erregeak formalki aitortu zuen Nafarroako Estatu Orokorrek eskubidea zutela, baina ez betebeharr legalik, diputatuak Frantziako Estatu Orokorretara bidaltzeko, Nafarroa estatu independentea baitzen.
- Diputatuak bidaltzera “gonbidatu” zituen nafarrak, baina “hauek ez haserretzeko, euren eskura utzi zuen egoki ikusi zuten moduan jokatzeari”.







Erdi aroko erresumak

- 1335eko Iruñeko katedraleko jantokiaren sabaia.
- 45 giltzarri ditu, armarriak eta erlijiozko eta landarezko motiboak dituela. Garai hartako estatuen armarriak agertzen dira: Nafarroa, Aragoi, Gaztela eta Leon, Ingalaterra, Frantzia eta Portugal eta Évreux konderria.

1512an asko galdu zen...

Baina ez zen independentzia galdu, “prenda de inmenso valor”



Ez zen moneta jaulkitzen
Gorteen baimenik gabe


1561eko Zangotzako gorteen
46. legea













Le Tableau

- Nafarroa estatu bat da eta mila urte bete ditu, 824an Eneko Aritza koroatu zenetik
- Nafarroa nazioa da gainerako euskal lurraldeekin batera
- Nafarren hizkuntza euskara da, “la langue du pays”
- Nafarrak ez dira ez frantsesak ez gaztelaniak, eta ez dira inoiz izan.
- Nafar estatuaren subiranotasuna bere gorteetan dago
- Nafarrek ez dute konstituzio berririk behar, jada badituztelako berea, foruak.
- Nafarrek ez dituzte Pariseko lege berriak behar, bereak hobeak direlako



1812-1892: Gerra eta gatazka 80 urtez

- Lehen Karlistada (1833-1839)
- 1841eko abuztuko lege "hitzarmendua"
 - Art. 1 eta 15. Okupazioa eta buruzagi militarra eta soldaduska
 - 13. Art. Gobernu zibila
 - Art. 8, 9, 10 eta 11, "foru-aldundia".
 - Art. 2, 3 eta 4. Justizia Administrazioa
 - Art. 5 eta 7. Udaletxeak
 - Art. 6, 10, 14. Komunalak eta partzuergoak
 - Art. 16-25. Zergak eta aduana (lurraldetasuna)
 - 26. artikulua. Eliza
- Bigarren Karlistada (1872-1876)
 - 40.000 soldadu eta salbuespen egoera
 - Zerbitzu militarra eta zergak
- Tejada-Valdosera (1877)
 - Kontzertua/hitzarmena eta kuoten sistemaren hasiera




Gamazada

- Maiatzak 16: Nafarroan "gainerako probintzietan bezala" zergak ezartzea proposatzen duen German Gamazoren paratu zen Nafarroako aldundia.
- Maiatzak 19: Javier Los Arcos diputatuak protesta egin zuen Madrilgo gorteetan "1841eko ituna" aipatuz.
- Ekainak 1-3: Lopez Zabalegi sarjentuaren ekintza
- Ekainak 4: Iruñean, 20.000 manifestari
- Ekainak 28: 120.000 nafarrek Nafarren Ohorezko Liburua sinatu zuten

Gamazo mailu batekin
jo behar dugu
foruak gureak izanik
kendu nahi baitizkigu.

- Abuztuak 16: San Roke, Gernika
- Abuztuak 27: Donostia
- 1894ko otsailaren 18a: Castejon
- 1903: Foruen monumentua




“Ez dugu forurik gabeko erregerik nahi,
Ezta forurik erregearekin;
Erregerik gabe, foruak nahi ditugu”.

Juana Irujo, Estanislao Arantzadi eta Daniel Irujo







Si el famoso árbol de Guernica da este fruto, procuremos que no vuelva a retoñar.

Gernikako arbola eta foruak euskaldun jendearen sinbolo gisa

- Gernikako arbola eta foruak euskaldun jendearen sinbolo nagusien artean ditugu, historian zehar euskal identitatea eta independentzia irudikatu dituztelako.
- Euskal foruak, lege konsuetudinarioak izanik, euskal lurraldeetako bizimodua eta antolaketa politiko eta soziala arautu dituzte mendeetan zehar. Foru hauek euskal herriaren bizkar-hezurra izan dira, komunitateari autonomia eta askatasuna emanez. Foruek bermatzen zuten euskal lurraldeek beren legeak, erakundeak eta ohiturak mantenduko zituztela. Horrek bermatu zuen herriak herri izaten jarraitu zezan.
- Gernikako arbola, foruen sinbolo gorenetakoa bat den aldetik, euskal erresistentzia, burujabetza eta askatasunaren ikur unibertsala bilakatu da. Bertan egiten ziren batzarrak eta bertan zin egiten zuten agintariek euskal legeak errespetatuko zituztela. Hori dela eta, Gernikako arbola ez da zuhaitz arrunta; foruak bizirik mantentzeko borrokaren eta herriaren batasunaren sinboloa da. Hori da Gernikako arbolaren eta Iruneko Foruen monumentuaren esanahi sinbolikoa.

